

EDUKIAK:

- 0.gaia: PROZESUAK, METODOAK ETA JARRERAK MATEMATIKATAN (Zeharka ikasturtean zehar)
1. gaia: ZENBAKIAK(Zeharka ikasturtean zehar)
2. gaia: ALJEBRA (4 aste)
3. gaia: TRIGONOMETRIA eta ZENBAKI KONPLEXUAK (6 aste)
4. gaia: PLANOAREN GEOMETRIA (8 aste)
5. gaia: FUNTZIOAK. LIMITEAK. DERIBATUAK. (10 aste)
6. gaia: ESTADISTIKA(3 aste)

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA**Matematika I****Kontrolak gaiz gai**

Kontrol guztietan item guztien gehienezko puntuazioa adieraziko da. Gaia gaindituztat emateko 10 puntutatik 5 atera behar ditu.

Berreskurapena:

Gero, bi asteren buruan edo, berreskurapen proba bat eginen dute gainditzeko gutxienez, 5 atera behar dutelarik.

Gaiaren nota:

Kontrolen kalifikazioak ez ezik, jarrera eta euskararen erabilpena ere jokatuko dute azken nota osatzeko, beti ere kontutan hartuta ikasle batek ez duela 4 baino nota altuagorik izango jarreraren E(oso txarra) kalifikazioa badu. Kasu hau kenduta, jarreraren arabera puntuazioa jaitsi ala igo daiteke (gehienez jota puntu erdi bat).

Ebaluazioko nota:

Ebaluazioa gainditzeko, ebaluazioan zehar egindako gai guztiak (berreskurapenak barne, egin badira) gaindituta izan behar ditu ikasleak. Kasu honetan, kalifikazioa, gai guztien noten batez bestekoa izanen da. Bestela nota 5 baino txikiagoa izango da.

1.deialdiko nota:

Ikasle batek jorratu diren gai guztiak gainditzen baditu, 1.deialdiko nota gai horien guztien noten batezbestekoa izanen da. Gairen bat gainditu gabe geratuz gero, beste proba bat egiteko aukera izanen dute ikasle guztiak, gaiz gai antolatua, bere momentuan gainditu ez zituzten gai guztiak aprobatu behar dituztelarik. Pendiente dituen gai bakoitzean, gutxienez 5 atera behar du gai hori gainditzeko.

2.deialdiko nota:

Azkeneko aukera, gainditugabekoentzat, 2.deialdikoa izanen da, bertan pendiente dituen gaien berreskurapen proba egin beharko du. Gainditzeko, gutxienez, 5 bat atera behar.

